

Kantu-Kontari

Musika-hizkuntza



Marta Agirre
Alaitz Amezua

erein




aurkibidea

LIBURUAREN ANTOLAKETA	4
SEKUENTZIALIZAZIOA	5
JARDUEREN AZALPENA	6
EDUKI TAULA	7
Beroketak	9
1. atala	18
2. atala	26
3. atala	34
4. atala	42
5. atala	50
6. atala	58
7. atala	66
8. atala	74
9. atala	82
Kaligrafia	90
Origamia	99
ERANTZUNAK	100
ENTZUNALDIEN AIPAMENAK	101
TERMINOAK ALFABETO HURRENKERAN	102

ERANSKINA: IPUINA eta ABESTIAK



Lau arlo:



Beroketak




Ipuina



Liburua



Kaligrafia



Beroketak. Lehen kontaktua grafia konbentzionalarekin. Musika-hizkuntzaren oinarriko elementuak.

Sei saio eta denbora-pasak.
Saio bakoitzean lau azalpen eta lau ariketa.



Kürü-kürü ipuina. Elementu egituratzailea. Musika-hizkuntzaren eta haurraren errealitatearen artean zubi-lanak egiten ditu.

Liburutik solte gurasoentzat. Bederatzi ataletan banatua, liburuko atalekin bat. Atal bakoitzak bi lotura:
-Ipuineko abestia.
-Musika, maestro!-ren entzunaldia.



Teoriaren txokoa. Kontzeptuen aurkezpena. Lau kontzeptu desberdin.



Abestu. Notak. Lau ariketa.

- 1- Tonu egokian
- 2- Abesti txikian
- 3- Kantari abeslari
- 4- Kantari bertsolari



Erritmoa. Zelula erritmikoak. Lau ariketa.

- 1- Erritmo txikian
- 2- Erritmoa rapean
- 3- Erritmoan errima
- 4- Bi erritmora



Entzun. Hiru ariketa.

- 1-Zuria ala beltza
- 2-Kode sekretua
- 3-Erritmo eta melodia diktatuak



Musika, maestro! Hiru ariketa.

- 1-Tinbre-jolasa
- 2-Tinbre-irudiak
- 3-Entzunaldia eta dantza



Ariketak. Kontzeptuen prozedura idatzia. Hiru orrialde. Hamabi ariketa.



Kaligrafia. Idazkera zuzena landu.

Bederatzi ataletan banatua, liburuko unitateekin bat. Sei ariketa.

IKASTURTEKO EGUTEGIA

IKASTURTEKO EGUTEGIA			
	Iraila	Beroketak	6 saio
1. HIRUHILEKOA	Urria - Gabonak	1. atala	6 saio
		2. atala	6 saio
		3. atala	6 saio
2. HIRUHILEKOA	Gabonak - Aste Santua	4. atala	6 saio
		5. atala	6 saio
		6. atala	6 saio
3. HIRUHILEKOA	Aste Santua - Udako oporrak	7. atala	6 saio
		8. atala	6 saio
		9. atala	6 saio

-Kantu-kontariren sekuentzializazioak haurren ikasturte-egutegiarekin bat egiten du: irailetik ekainera.
 -Hiru hiruhilekotan banatzen da: Gabonak arte, Aste Santua arte eta ekaineko oporrak arte.
 -Sarrera gisa, beroketa atal bat dago irailean egiteko. Urrian, liburuko atalekin hasiko da.
 -Hiruhilekoa hiru atalek osatzen dute.
 -Atal bat hiru astetan.
 -Atal bakoitzak 6 saio.
 -Astean bi saio.

ATAL BATEN SEKUENTZIALIZAZIO IRADOKIZUNA

Zortzi dira atal bakoitzean aurkezten diren lan-arloak: Ipuina; Teoriaren txokoa; Abestu; Erritmoa; Entzun; Musika, maestro!; Ariketak, eta Kaligrafia. Lan-arlo horien sekuentzializazioa irakaslearen behar edo nahietara moldatzea da egokiena.

Taula hau iradokizuna da. Antolatzeko orduan, bi irizpide izan ditugu gogoan: jarduera kopurua eta lan-arloen arteko oreka.

UNITATEA	1. saioa	2. saioa	3. saioa	4. saioa	5. saioa	6. saioa
IPUINA	Ipuina, ipuineko abestia edo entzunaldia.					
TEORIAREN TXOKOA	1	2	3	4		
ABESTU	1	2	3	4	Errepasoa	Buruz ikasi
ERRITMOA	1	2	3	4	Errepasoa	
ENTZUN		1		2		3
MUSIKA, MAESTRO!	1		2		3	Errepasoa
ARIKETAK	1 2	3 4	5 6	7 8	9 10	11 12
KALIGRAFIA					1 2 3	1 2 3



BEROKETAK

Ikasle-irakasleen arteko lehen kontakturako tartea.
Elementu musikalen aurkezpena eta oinarritzko erabilera.
Lan-dinamika barneratuz liburuan murgildu.



KÜRÜ-KÜRÜ. Ipuina.

Ipuin-kontakizunak ematen dio hasiera liburuko atal bakoitzari. Ataleko gainerako saioei, kontakizunarekin ez ezik, ipuineko abesti edota entzunaldiarekin eman dakieke.



TEORIAREN TXOKOA.

Kontzeptuen kontsulta-orria.
Kontzeptu berrien azalpenerako, behaketarako eta berbalizazioarako gunea.

ABESTU.

1-Tonu egokian.

Irakurketa eta afinazio zuzena. Nota eta bitarteen erabilera sekuentzializatua.

2-Abesti txikian.

Irakurri eta afinatu lau konpasetan.

3-Kantari abeslari.

Irakurri eta afinatu elementu konplexuagoak biltzen dituen zortzi konpaseko musika-piezan.

Abestia eta letra buruz ikasiz memoria landu.

4-Kantari bertsolari.

Herri-ondareko piezak beren osotasunean irakurri eta afinatu.

Abestia buruz ikasiz memoria landu. Letra asmatuz sormena bultzatu.



ERRITMOA.

1-Erritmo txikian.

Irudi berrien erabilera.

2-Erritmoa rapean.

Irudi-konbinazioak. Erritmoa eta letra buruz ikasiz memoria landu.

3- Erritmoan errima.

Erritmo pieza zortzi konpasetan.

Erritmoa buruz ikasiz memoria landu. Letra asmatuz sormena bultzatu.

4-Bi erritmora.

Polirritmia. Koordinazioa landu. Irakurketa bikoitzarekin saiatu.



ENTZUN.

1-Zuria ala beltza.

Diskriminatu entzundako erritmoa. Diskriminatu entzundako melodia.

2-Kode sekretua.

Diskriminatu entzundako erritmoa edota melodia testuinguru luzeago batean.

3-Erritmo eta melodia diktatuak.

Identifikatu erritmoa, erritmo diktatuan, eta erritmoa eta melodia, melodia diktatuan.

MUSIKA, MAESTRO!

1-Tinbre-jolasa.

Jolasen bidez tinbrea landu.

2-Tinbre-irudiak.

Instrumentuak eta beraien familiak ezagutu. *Azalpen zabalagorako aukera.

2-Entzunaldia eta dantza.

Psikomotrizitatea.

ARIKETAK

Irakurketa eta idazketa menperatzeko ariketak.

KALIGRAFIA

Idazkera zuzena bultzatu.

KANTU-KONTARI										
U.	ALTUERA	IRAUPENA				INT.	TINBREA	MUG.	F.	GALDERA ETA ERANTZUNA
		KONPASA	IRUDIAK	ZEINUAK	ZELULA ERITMIKOAK					
1. HIRUHILEKOA		Pultsua Azentua					AHOTSA			
		$\frac{2}{4}$				$\frac{2}{4}$ KONPASEAN	TONUAN JARRI GABEKO PEKUSIO INSTRUMENTUAK	Allegro		
		$\frac{2}{4}$				f p	TONUAN JARRITAKO PERKUSIO INSTRUMENTUAK			
2. HIRUHILEKOA		Anakrusa				$\frac{2}{4}$ IRUDI ETA ZEINUAK ERABILIZ ZELULA ERITMIKOAK	HARI INSTRUMENTUAK	Adagio		
		Anakrusa				$\frac{2}{4}$ KONPASEAN	HARI INSTRUMENTUAK			
3. HIRUHILEKOA		$\frac{3}{4}$				$\frac{3}{4}$ IRUDI ETA ZEINUAK ERABILIZ ZELULA ERITMIKOAK	ZUREZKO HAIZE INSTRUMENTUAK	Andante		
		$\frac{3}{4}$				$\frac{3}{4}$ KONPASEAN	METALEZKO HAIZE INSTRUMENTUAK			
		$\frac{3}{4}$				$\frac{3}{4}$ IRUDI ETA ZEINUAK ERABILIZ ZELULA ERITMIKOAK	TEKLA EDO BOTOIDUN HAIZE INSTRUMENTUAK	Presto		

Beroketak





Musika **PENTAGRAMA** n idazten da. Pentagramak bost lerro eta lau tarte ditu.

1 Zenbatu pentagramako lerroak eta tarteak, eta osatu falta dena.

Three musical staves are shown, each with five lines and four spaces. The first staff has numbers 1, 2, 3, 4, 5 written below the lines. The second staff has numbers 1, 2, 3, 4, 5 written below the spaces. The third staff has numbers 1, 2, 3, 4, 5 written below the lines and spaces, alternating between lines and spaces.

SOL KLABEA pentagramaren hasieran idazten da.

2 Gainetik marraztu sol klabea, bigarren lerrotik hasiz eta geziaren norabidea jarraituz.

A musical staff with a treble clef. A blue horizontal line is drawn across the second line from the bottom. Arrows point to the right from the top of each note on this line, indicating the direction of the key signature.

NOTA batzuk lerro gainean idazten dira, beste batzuk lerro tartean.

3 Gainetik marraztu lerro gaineko eta tarteetako notak; ez ahaztu sol klabeaz.

Two musical staves with treble clefs. The first staff shows a sequence of notes: one on the first space (F), one on the second line (G), one on the second space (A), one on the third line (B), and one on the third space (C). The second staff shows a similar sequence: one on the first space (F), one on the second space (A), one on the third line (B), one on the third space (C), and one on the fourth line (D).

Notak **ZORROZTU** edo **BAXUTU** egiten dira.

4 Gainetik marraztu jarraian tartekatuz doazen notak; ez ahaztu sol klabeaz.


Two musical staves with treble clefs. The first staff shows a sequence of notes ascending from the first space (F) to the fifth line (C), with a blue arrow pointing upwards below the staff labeled "ZORROZTU". The second staff shows a sequence of notes descending from the fifth line (C) to the first space (F), with a blue arrow pointing downwards below the staff labeled "BAXUTU".



Nota-irudi honek **BELTZA** du izena.
Buruak eta plikak osatzen dute.
Pultsu bat balio du.




1 Gainetik marraztu beltzak.




Notei **plika** eskuin aldean ipintzen zaie, gora begira eta burua ukituz.

2 Osatu beltz hauek plikak eginez. Ez ahaztu beltzen buruak gainetik marraztea.




Noten **buruak** lerro gainean edo tartean ondo zehaztuta egon behar du.

3 Osatu plika hauek beltzen buruak betez.



Nota bat bestea baino gorago idazten denean, soinua **zorrotza** goa da.

4 Gainetik marraztu sol klabea eta beltzak. Adierazi soinuaren norabidea.






BI-LAUKO KONPASA

Sol klabearen ondoren,
Abesti hasieran soilik.


Soinuak pultsutan ordenatzen ditu.
Bi pultsurekin **konpasa** osatzen da
eta **zatilerroa** ipintzen da.
Abesti bukaeran **zatilerro bikoitza**.

1 Gainetik marraztu bi-lauko konpasa.




Konpaseko lehenengo pultsua indartsuagoa da, **azentua** du.

2 Gainetik marraztu eta koloreztatu pultsuaren geziak.



Pultsua erregularra da, erlojuaren tik-tak-a bezala.

3 Gainetik marraztu, ipini zatilerroa eta margotu pultsuaren geziak.



Nota bat bestea baino beherago idazten denean, **soinua baxu** goa da.

4 Gainetik marraztu, eta adierazi geziarekin notak zorroztu ala baxutu egiten diren.






Zeinu honek
BELTZ-ISILUNEA
adierazten du.




Beltz baten iraupena du, baina isilik.

1 Gaietik marraztu beltz-isiluneak.




Beltz-isiluneak pultsu bat balio du.

2 Gaietik marraztu, zenbatu konpasak eta margotu pultsuaren geziak.





Bi pultsuren ondoren, zatilerroa ipintzen da.

3 Gaietik marraztu, pultsuak beltz-isiluneekin osatu eta ipini zatilerroak.



Abestiaren bukaeran, zatilerro bikoitza ipintzen da.

4 Gaietik marraztu eta ipini beltza zehazten den lekuan.





SOL MI

1 Gainetik marraztu sol eta mi beltzak.

Sol klabeak, sol izena ematen dio bigarren lerroan dagoen nota-irudiari.

2 Osatu abestia, sol beltzak erabiliz. Gainetik marraztu, eta margotu pulsuaren geziak.

Mi nota sol baino baxuagoa da eta lehenengo lerroan kokatzen da.

3 Osatu abestia, mi beltzak erabiliz. Gainetik marraztu, eta margotu pulsuaren geziak.

Bisoinu berdinak badira, pentagraman leku berdinean idazten dira.

4 Idatzi sol eta mi beltzak, zehaztutako lekuetan.

sol mi mi sol sol sol




ESKALA

Jarraian doazen notak.
Batetik hasi eta haren zortziduna arte.
Zorroztu eta baxutu egiten dira.

DO ESKALA

Goranzko eskala: do-re-mi-fa-sol-la-si-do'
Beheranzko eskala: do'-si-la-sol-fa-mi-re-do

1



2 Gaietik marraztu, idatzi noten izenak, eta zenbatu konpasak.

3 Gaietik marraztu, ipini notak pentagraman, eta zenbatu konpasak.

4 Gaietik marraztu, eta adierazi soinuaren norabidea.



1 Ordenatu, konpas bakoitzari dagokion zenbakia ipiniz.

□ □ □

2 Osatu jarraian doazen nota hauen segidak.

3 Lotu hitza eta irudia.

ZATILERROA
PENTAGRAMA
BELTZA
MARRA BIKOITZA
BI-LAUKO KONPASA
SOL KLABEA

4 Aurkitu zazpi akatsak.

Kantu-Kontari



kürü-kürü



I. atala

Teoriaren txokoa


1

Pentagrama
Sol klabea
Lerro gaineko notak
Lerro tarteko notak





2

Bi-lauko konpasa / Konpasa
Pultsua / Azentua
Zatilerroa / Zatilerro bikoitza




3




4

♪ Zuria
♪ Beltza
♪ Beltz-isilunea








Abestu




1 Tonu egokian.





2 Abesti txikian.



3 Kantari abeslari.



4 Kantari bertsolari.





Erritmoa

1 $\frac{2}{4}$ | $\frac{2}{4}$ |

2 $\frac{2}{4}$ | $\frac{2}{4}$ |

1 Erritmo txikian.

2 Erritmoa rapean.

Kai- xo, Jon naiz ni.

3 Erritmoan errima.

5

4 Bi erritmora.



Entzun

1 Zein entzun duzu? Zuria ala beltza?

7

2/4

2 Kode sekretua. Zein da zenbaki sekretua?

7

2/4

1 2 3 4

Zein konpas entzun duzu?

2

1 2 3 4

Zein konpas entzun duzu?

3 Erritmoa eta melodia diktatuak.

Nota-irudiak eta isilunea:

7

2/4

Notak:

Nota-irudiak eta isilunea:

2




Musika, maestro!

AHOTSA

Ahotsa gure musika-tresna da, txiki-txikitatik daukaguna. Zaindu beharra daukagu. Ba al dakizu nola?*

Ahots-soinuen kontzertua.

Asmatu bakoitzak soinu bat ahotsarekin egiteko. Taldearen aurrean ozen egin. Bakoitzaren soinuak adostu eta antolatu abesbatza ahotsen erregistroen arabera: soinu zorrotzak, soinu ertainak eta soinu baxuak. Irakasle-zuzendariari dagokio erabakitzea soinu bakoitzaren iraupena zenbatekoa izango den, soinu bat edo gehiago aldi berean egitea edo ez... Adi batutari, hasi da kontzertua! *Graba daiteke, soinuak nork egin dituen asmatzeko...*



Margotu zeure burua abesten.



Mozart, W.A.: Txirula magikoa. "Txori-saltzailea naiz".

- Denbora: Nahi beste luza daiteke.
- Parte-hartzaile kopurua: Talde osoa.
- Eszenaratzea: Librea; banaka, binaka, ilaran...
- Ipuinean: Papagenok zer egingo luke txori hau ikusiko balu?

Papagenoren abestia. Papageno txori-saltzailea da eta ibilera xelebrea du. Honela ematen ditu pausoak:



Anakrusa ondoren bi pauso luze eta gero hanka-puntetan hiru pauso motz. Txirula-doinua entzuten duenean gelditu egiten da. Erne belarriak! Goazen denok Papagenoren ibilera xelebrea antzetzera! *Nolakoa da Papagenoren ahotsa?*